



DENBORA ZIGILATZEKO POLITIKA (TSA)

---

© IZENPE 2023

Dokumentu hau IZENPErena da. Osotasunean soilik erreproduzi daiteke.



## ALDAKETEN KONTROLA

BERTSIOA	DATA	ALDAKETAK
1.1	2018/02/20	<ul style="list-style-type: none"><li>– 5.1. Identifikazioa Politikaren identifikazioa eguneratzea. Denbora-zigiluko tokena: 1.3.6.1.4.1.14777.3.3</li></ul>
1.2	2021/10/06	<ul style="list-style-type: none"><li>– Epigrafe berri bat biltzen da: Aldaketen Kontrola, eta DOC_P_Actualización_DPTSA dokumentua ezabatzen da.</li><li>– Idazketa hobetu da.</li><li>– 5.1. Identifikazioa Politikaren identifikazioa eguneratzea. Denbora-zigiluko tokena: 1.3.6.1.4.1.14777.300.1</li><li>– 6.5 Denbora-zigilua jaulkitzeko prozedura. Mendeko Ziurtapen Agintaritzaren Ziurtagiri Katea eguneratzea CN = SUBCA QC IZENPE – TSA</li><li>– 6.8.3 TSAren ziurtagiriaren profila. Ziurtapen datuen eguneratzea.</li><li>– 6.8.4 Denbora zigiluko tokenaren profila. OID eguneratzea OID = 1.3.6.1.4.1.14777.300.1</li></ul>
1.3	2021/12/09	<ul style="list-style-type: none"><li>– 6.8.2 Denbora-zigiluaren eskaeraren profila. Onartutako hash algoritmoen zehaztapena</li></ul>
1.4	2022/10/21	<ul style="list-style-type: none"><li>– 6.8.2 Denbora-zigiluaren eskaeraren profila: onartzen diren hash algoritmo guztiak gehitzen dira eta haien lehentasuna zehazten da.</li><li>– 6.7.7 atala, TSA ziurtagiriaren gako pribatua arriskuan egotea, eta 6.7.8 atala, TSAren amaiera, eguneratzea.</li></ul>
1.5	2023/10/19	<ul style="list-style-type: none"><li>– 2.1: epigrafea. Definizioen eguneraketa</li></ul>



## Aurkibidea

### Edukia

<b>1</b>	<b>SARRERA</b>	<b>6</b>
<b>2</b>	<b>Definizioak eta akronimoak</b>	<b>7</b>
2.1	Definizioak	7
2.2	Akronimoak	7
<b>3</b>	<b>ESPARRUA</b>	<b>8</b>
<b>4</b>	<b>KONTZEPTU OROKORRAK</b>	<b>9</b>
4.1	Denbora zigilatzeke zerbitzuak	9
4.2	Denbora Zigilatzeke Agintaritza	9
4.3	Harpideduna	9
4.4	Denbora zigilatzeke politika eta TSAren praktiken deklarazioa	9
4.4.1	Xedea	9
4.4.2	Zehaztasun-maila.	10
4.4.3	Ikuspegia	10
<b>5</b>	<b>TSA-REN POLITIKARAKO SARRERA ETA BETEKIZUN OROKORRAK</b>	<b>11</b>
5.1	Identifikazioa	11
5.2	Erabiltzaile-erkidegoa eta aplikagarritasuna	11
5.3	Adostasuna	11
<b>6</b>	<b>DENBORA ZIGILATZEKE POLITIKA</b>	<b>12</b>
6.1	Konfiantza-sistemak hedatzea eta mantentzea	12
6.2	Denbora Zigilatzeke Politika	12
6.3	Obligazioak eta betebeharrak	13



6.3.1	Denbora-zigiluak jaulkitzen dituen entitatearen betebeharrak	13
6.3.2	Denbora-zigiluen harpidedunaren betebeharrak	13
6.3.3	Denbora-zigiluak egiaztatzen dituzten hirugarren aldean betebeharrak	14
6.4	Erantzukizunak	14
6.5	Denbora-zigilua jaulkitzeko prozedura	14
6.5.1	Denbora zigilatzeke zerbitzuaren hornidura eta eskuragarritasuna	14
6.5.2	Denbora zigilatzeke eskaera	15
6.5.3	Denbora zigilatzeke eskaera bati erantzutea	15
6.6	TSaren administrazioa eta eragiketa	15
6.6.1	Segurtasun Kudeaketa	15
6.6.2	Aktiboen sailkapena eta kudeaketa	15
6.6.3	Langileen segurtasuna	15
6.7	Kontrol kriptografikoak	16
6.7.1	TSaren gako sortzea	16
6.7.2	TSUren gako pribatua babestea	16
6.7.3	TSUaren gako publikoaren banaketa	16
6.7.4	Ziurtagiria berritzea, TSUaren gako birsortuta.	16
6.7.5	TSUren gakoaren bizi-zikloaren amaiera	16
6.7.6	Denbora-zigiluak sinatzeko erabilitako modulu kriptografikoaren bizi-zikloaren kudeaketa	16
6.7.7	TSA ziurtagiriaren gako pribatua arriskuan egotea	16
6.7.8	TSaren amaiera	17
6.8	Denbora zigilatzea	17
6.8.1	Zerbitzua egiteko erabilitako denbora-iturria	17
6.8.2	Denbora-zigiluaren eskaeraren profila	18
6.8.3	TSaren ziurtagiriaren profila	18



6.8.4	Denbora zigiluko tokenaren profila	20
6.8.5	Erlojua UTCarekin sinkronizatzea	20
6.9	Segurtasun fisikoa eta ingurumenekoa	20
6.10	Eragiketen kudeaketa	20
6.11	Sareko segurtasuna	20
6.12	Gertakarien kudeaketa	21
6.13	Ebidentziak jasotzea	21
6.14	Denbora zigilatzeke zerbitzuen eragiketarekin lotzen den informazioa artxibatzea	21
6.15	Sistematarako sarbideen kudeaketa	21
6.16	Lege-betekizunak betetzea	21
6.17	Antolamendua	21



## 1 SARRERA

---

Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe, SA enpresak (aurrerantzean Izenpe) denbora zigilatze zerbitzu kualifikatua eskaintzen du Konfiantzako Zerbitzugile Kualifikatu den aldetik –1999/93/EE Zuzentaraua (aurrerantzean eIDAS) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko uztailaren 23ko 910/2014 Araudiaren arabera–.

Zerbitzu horrek datu bat denbora-lerroaren une jakin batean egotearen ebidentzia digitalak sortzen eta erregistratzen ditu modu fidagarrian eta konfiantzazkoan, datu elektronikoen fidagarritasuna nabarmen hobetuta.

Dokumentu honek Denbora Zigilatze Agintaritzaren (TSA) politika deskribatzen du.

TSAREN politika horrek zehazten ditu denbora-zigilua sortzeko Denbora Zigilatze Agintaritzaren politika eta prozesu orokorrak, baita haren zerbitzuak ere. Halaber, IZENPEren Ziurtapen Praktiken Deklarazioaren (ZPD) prozesu eta xehetasun tekniko gehigarriak zehaztuko dira.

Kanpo-entitate batek ikuskatuko ditu definitutako prozedurak eta horien ezarpen zuzena, betiere ETSIk EN 319 421 arauaren bidez definitutako zehaztapenen arabera.



## 2 Definizioak eta akronimoak

---

### 2.1 Definizioak

Politika honek Ziurtapen Praktiken Deklarazioan erabiltzen diren definizioak eta akronimoak aplikatzen ditu, honako hauez gain:

- **Denbora Zigilatze Agintaritza (TSA):** denbora-zigiluen tokenak igortzen dituen agintaritza
- **Hirugarren alde erabiltzaileak:** IZENPEk eskaintzen duen denbora-zigilu batean konfiantza duen erabiltzailea.
- **Harpideduna:** TSAk eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzen dituen eta terminoak eta baldintzak modu esplizituan onartzen dituen pertsona.
- **Denbora zigitatzeko politika:** denbora-zigiluko token bat sortzen denean TSAri aplikatzen zaizkion arauak.
- **Denbora-zigiluko tokena:** datu digital batzuen existentzia eta une jakin bat lotzen dituen datu-objektua. Datu bat denbora-lerroko une jakin batean bazegoela jasotzen duen ebidentzia gisa da baliagarria.
- **Denbora zigitatzeko unitatea:** hardware- eta software-osagaiak, denbora-zigiluko tokenak denbora-iturri bakar batetik eskaintzen dituen unitate gisa kudeatzen direnak. Osagai klonatuak edo osatuak izan daitezke, eskuragarritasun handia lortzearren.
- **TSAren Praktiken Deklarazioa:** TSA baten politikak eta praktikak, batez ere harpidedunei eta hirugarren aldeei bideratuta.
- **Coordinated Universal Time:** denbora-eskala segundoan oinarritzen da Recommendation ITU-R TF.460-1 gomendioan definitzen denaren arabera
- **UTC(k):** “k” laborategi batek UTCaren arabera egindako denbora-eskala, betiere gehienez 100ns inguruko desbideratzea lortzearren.

### 2.2 Akronimoak

- **TSA:** Time Stamp Authority
- **TSU:** Time Stamp Unit
- **TST:** Time Stamp Token
- **UTC:** Coordinated Universal Time
- **eIDAS:** 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko uztailaren 23ko 910/2014 Araudia
- **ZPD:** Ziurtapen Praktiken Deklarazioaren



### 3 ESPARRUA

---

Dokumentu honek definitzen ditu Denbora Zigilatze Agintaritzaren (TSA) eragiketa- eta kudeaketa-praktikak, betiere harpidedunek eta konfiantzazko hirugarrenek denbora zigilatze zerbitzuen fidagarritasuna ebaluatu ahal izan dezaten.

TSAREN politikaren betekizunak bat datoz Europako eIDAS araudiaren xedapenekin. IZENPEren denbora zigilatze zerbitzuak sinadura elektronikoko bati aplikatu dakizkioke, edo denboraren puntu jakin batean datu digital batzuen existentziaren ebidentzia eskatzen duen edozein aplikaziori. Politikaren betekizun horiek gako publikoko kriptografian, gako publikoko ziurtagirietan (X.509) eta denbora-iturri fidagarrietan oinarritzen dira.

Organismo independenteek dokumentu hau eta IZENPEren ZPDA erabil ditzakete TSA honen eta denbora zigilatze zerbitzuen fidagarritasuna ebaluatzeko.





## 4 KONTZEPTU OROKORRAK

---

### 4.1 Denbora zigilatzeke zerbitzuak

Denbora zigilatzeke zerbitzuek bi osagai hartzen dituzte barnean:

- **Denbora-zigiluen hornikuntza:** denbora-zigiluaren tokenak sortzeaz arduratzen den osagai teknikoa.
- **Denbora-zigiluen administrazioa:** denbora zigilatzeke zerbitzuen eragiketa monitorizatzen eta kontrolatzen duen zerbitzuaren osagaia. Denbora zigilatzearen kudeaketak bermatzen du denbora-zigilatzean erabiltzen diren erlojuak behar bezala sinkronizatuta daudela UTCarekin.

### 4.2 Denbora Zigilatzeke Agintaritza

IZENPEren TSAk bere gain hartzen du “Denbora zigilatzeke zerbitzuak” atalean adierazten diren denbora zigilatzeke zerbitzuen hornikuntzaren gaineko erantzukizuna.

Izenperen Denbora Zigilatzeke Agintaritzak bere gain hartzen du denbora zigilatzeke zerbitzuak, “6.4 Erantzukizunak”. atalean adierazitakoak, egiteko erantzukizuna. IZENPEren TSAk denbora-zigiluko hainbat unitate identifikagarriekin (TSU) jardun dezake, eta TSU bakoitzak gako desberdina izan dezake (ikus “6.8.4 Denbora zigiluko tokenaren profila” atala).

TSU baten barruan, gakoak klonatzea daiteke eta osagai erredundanteetan erabil daiteke eskuragarritasun handiko betekizunak betetzeko.

IZENPEren TSA identifikatuta dago denbora zigilatzeke zerbitzuek erabilitako ziurtagiri digitalean. Profila eskuragarri dago “6.8.3 TSAren ziurtagiriaren profila” atalean.

### 4.3 Harpideduna

Erakunde bat edo partikular bat izan daiteke harpideduna.

- **Harpideduna erakunde bat bada,** erakunde horri aplikatzen zaizkion betebeharrak aplikatzen zaizkie haiekin lotzen diren azken erabiltzaileei ere bai.

Erakundeak behar bezala informatu beharko ditu azken erabiltzaileak eta erakundeak izango da erantzulea azken erabiltzaileek ez badituzte betebeharrak zuzen betetzen.

- Harpideduna **erabiltzaile partikular** bat bada, azken erabiltzailea zuzenean izango da betebeharrak betetzearen erantzulea.

### 4.4 Denbora zigilatzeke politika eta TSAren praktiken deklarazioa

#### 4.4.1 Xedea

Denbora zigilatzeke politika eta praktiken deklarazioa, honela defini daitezke:

- Harpidedunak zein denbora-zigiluen agintaritza jaulkitzaileak bete behar dituzten alderdiak definitzen ditu TSAren politikak. TSAk, denbora-zigiluko token bat sortzen duenean, aplikatzen dituen arauak eta prozesuak barnean hartzen dira.
- Praktiken Deklarazioaren (ZPD) bidez adierazten da denbora zigilatzeke zerbitzua nola osatuta dagoen politikaren betekizunak betetzeko.



- IZENPEren ZPDan deskribatutako prozesuen osagarri gisa, TSAren politika honek prozesu eta politika espezifikoak deskribatzen ditu.

#### 4.4.2 Zehaztasun-maila.

TSAren politikak zehazten ditu zer prozesu erabiltzen den denbora zigitatzeko zerbitzuak egiteko, betiere ZPDan deskribatzen diren prozesuak zabaldua.

#### 4.4.3 Ikuspegia

TSAren politika prozesu orokorretara bideratzen da: ZPDan edo barne dokumentuetan zehazten dira antolamendu-egituren, prozedura operatiboen eta komunikazio-azpiegituren gisako xehetasun teknikoak. Barne-dokumentuak ez daude jendearentzat eskuragarri.



## 5 TSA-REN POLITIKARAKO SARRERA ETA BETEKIZUN OROKORRAK

---

### 5.1 Identifikazioa

IZENPEk honako politika-identifikatzaile (OID) hau jartzen die bere TSA bidez jaulkitako denbora-zigiluko token guztiei.

Denbora-zigiluko tokena	1.3.6.1.4.1.14777.300.1
-------------------------	-------------------------

### 5.2 Erabiltzaile-erkidegoa eta aplikagarritasuna

Denbora zigilatzeke zerbitzuaren erabiltzaileak zerbitzu hori behar duten harpidedunak eta hirugarren aldeak izango dira. Hilean eskaera kopuru jakin bateko muga dago, muga horretatik aurrera zerbitzuak kostu gehigarria izango du. Baldintzak eta tarifak kontsultatzeko, jarri IZENPErekin harremanetan.

### 5.3 Adostasuna

Aldian behingo barne- eta kanpo-ikuskapenek ziurtatuko dute denbora zigilatzeke politika betetzen dela.

IZENPEk “ Betebeharrak eta erantzukizunak” atalean definitzen diren betebeharrak betetzen ditu, eta kontrol egokiak ezar daitezzen ziurtatzen du.



## 6 DENBORA ZIGILATZEKO POLITIKA

---

### 6.1 Konfiantza-sistemak hedatzea eta mantentzea

TSAren gakoak eta haren zerbitzuak konfiantzako ingurune batean sortzen dira. IZENPEk erabiltzen dituen sistemak eta produktuek zerbitzu egokiak eskaintzen dituzte, eskatzen diren ziurtasun-mailen arabera. IZENPEk segurtasun-betekizunen analisi egokia egiten du eta aldaketak kontrolatzeko prozedurak ditu.

### 6.2 Denbora Zigilatzeako Politika

Politika honetan, ZPDan eta betekizun teknikoak, operatiboak eta prozedurazkoak definitzen dituzten barne-dokumentu osagarrietan ezarritako arauen arabera egiten ditu bere zerbitzuak TSAk. IZENPEk TSAko zerbitzu espezifikoak eskain diezazkioke modu pribatuan eskatzaile bati.

Politikak IZENPE nola atxikitzen zaien ZPDan eta beste barne-dokumentu batzuetan identifikatutako betekizunei.

Definitutako prozedurak eta horien ezarpen zuzena urtero ikuskatuko ditu kanpo-entitate independente batek.

TSA eta garrantzizko bestelako dokumentazioa eskura daude [www.izenpe.com](http://www.izenpe.com) webgunean.

TSAREN dibulgazio-deklarazioa “ **Errorea! Ez da erreferentzia-iturburua aurkitu. Errorea! Ez da erreferentzia-iturburua aurkitu.**” puntuan barne hartzen da. Barne-dokumentuak ez dira argitara ematen. TSAko praktiken gaineko aldaketak, edo beste edozein dokumentu argitaraturen gaineko aldaketak, ZPDaren zehaztapenen arabera egin beharko dira.

Dokumentu honetan ezartzen diren terminoak eta baldintzak lotesleak dira IZENPEren denbora zigilatzeako zerbitzuak erabiltzen dituzten harpidedun guztientzat eta hirugarren alde guztientzat.

Politika hori osatzen duten beste dokumentu batzuk –hala nola ZPDa– aurki daitezke [www.izenpe.com](http://www.izenpe.com) webgunean.

- IZENPEren TSA zerbitzua denbora zigilatzeako zerbitzu kualifikatua da eIDAS araudiaren arabera.
- Harremanetan jartzeko informaziorako, kontsultatu ZPDaren “1.5.2 Harremanetarako datuak” atala.
- Denbora-zigiluak jaulkitzen dituen entitatearen betebeharrak dokumentu honen 6.3.1 *Denbora-zigiluak jaulkitzen dituen entitatearen betebeharrak* atalean daude definituta.
- Harpidedunaren betebeharrak dokumentu honen 6.3.2 *Denbora-zigiluen harpidedunaren betebeharrak* puntuan daude zehaztuta
- Hirugarren batzuen betebeharrak dokumentu honen 6.3.3 *Denbora-zigiluak egiaztatzen dituzten hirugarren aldean betebeharrak* puntuan daude definituta
- Denbora Zigilatzeako Agintaritzaren erantzukizunak dokumentu honen 6.4 *Erantzukizunak* puntuan definituta daude.
- Zerbitzuak IZENPEren prezio-katalogoko tarifen arabera du.
- IZENPEk TSAren eragiketa guztien erregistroa gordetzen du, dokumentu honen 6.13 *Ebidentziak jasotzea* puntuan aditzera ematen denaren arabera.



- Erreklamazioak eta auziak ebazteko, kontsultatu ZPDaren “9.12 Erreklamazioak eta auzien ebazpena” puntua.
- Harpidedunek eta hirugarren aldeek onartu egiten dituzte IZENPEk definitutako erabilera-baldintzak.
- Ziurtapen Agintaritza batek jaulkitzen du IZENPEren TSAren ziurtagiria, eta Agintaritza horren ziurtatze-politikak IZENPEren ZPDan adierazten diren jarraibideak betetzen ditu.
- IZENPEren TSA zerbitzuak jaulkitako denbora-zigiluko token bakoitzak barnean hartzen du 6.8.4 *Denbora zigiluko tokenaren profila* atalean definitutako objektu-identifikatzailea.
- Onartzen diren hash-algoritmoak adierazten dira 6.8.2 *Denbora-zigiluaren eskaeraren profila* atalean. TSA tokenaren sinadura-algoritmoa 6.8.4 *Denbora zigiluko tokenaren profila* atalean definitzen da.
- TSAk +/- 1 segundoko UTC denbora-estandar minimoekin bateragarria den denbora-doitiasuna ziurtatzen du. IZENPEren TSAk ez ditu denbora-zigiluko tokenak jaulkiko, ezin badu denbora-doitiasun hori ziurtatu.
- Erantzukizun-mugak dokumentu honen 6.4 *Erantzukizunak* atalean, ZPDan eta erabiltzaileekin mantentzen diren beste zerbitzu-akordio batzuetan definitzen dira.

### 6.3 Obligazioak eta betebeharrak

IZENPEk honako betebeharrak hartzen ditu bere gain, Denbora Zigilatze Politika honen arabera denbora-zigiluak jaulkitzen dituen entitatearen aldean:

#### 6.3.1 Denbora-zigiluak jaulkitzen dituen entitatearen betebeharrak

IZENPEren Denbora Zigilatze Agintaritza

- Denbora-zigiluko token seguruak (TST) jaulkitzen ditu denbora zigilatze zerbitzuen erabiltzaileentzat (harpidedunentzat zein hirugarren aldeentzat).
- Bere gain hartzen du denbora zigilatze zerbitzuak egiteko erantzukizuna.
- Denbora zigilatze hainbat unitate identifikagarriekin (TSU) lan egin dezake, eta horietako bakoitzak bere sinadura-gakoa izan dezake.
- Identifikatuta dago denbora zigilatze zerbitzuek erabilitako ziurtagiri digitalean.
- Bere zerbitzuak eskaintzen dizkie harpidedun guztiei eta denbora-zigiluak egiaztatzen dituzten hirugarren aldeei, baldin eta haien betebeharrak beteko dituztela hitz ematen badute.

#### 6.3.2 Denbora-zigiluen harpidedunaren betebeharrak

Denbora-zigiluko harpidedunak denbora zigilatze zerbitzua erabil dezake soilik ETSI EN 319 422 arauaren zehaztapenen arabera.

Harpidedunak egiaztatu beharko du denbora zigilatze agintaritzak behar bezala sinatu duela denbora-zigiluko tokena, baita denbora-zigiluko tokena sinatzeko erabilitako gako pribatua ez dela ezeztatu.

Harpidedunak Izenperen Denbora Zigilatze politika honekin bete behar du, [www.izenpe.eus](http://www.izenpe.eus) webgunean eskuragarri.



### 6.3.3 Denbora-zigiluak egiaztatzen dituzten hirugarren aldeen betebeharrak

Denbora zigilatzeke token bat jasotzen denean, hirugarren aldeak egiaztatu beharko du behar bezala sinatuta dagoela eta denbora-zigilua sinatzeko erabilitako gako pribatua ez dela ezeztatu.

Denbora-zigiluak sortzeko erabiltzen den ziurtagiria iraungitzen ez den bitartean, posible izango da haren baliagarritasuna egiaztatzea dagokion CRLan.

Egiaztapena ziurtagiriaren balio-aldiaren ondoren egiten bada, hirugarren aldeak egiaztatu beharko du ea oraindik ere segurutzat jo daitezkeen erabilitako hash-funtzioa, algoritmoak eta gako kriptografikoen luzera.

## 6.4 Erantzukizunak

- IZENPEk bere TSA politikaren eta bere ZPDaren arabera jarduten du, baita IZENPEren eta denbora zigilatzeke zerbitzuaren erabiltzaileen arteko bestelako akordio lotesle baten baldintzen arabera ere.
- IZENPEk ahalegin berezia egiten du bere zerbitzuetan eskuragarritasun handia eskaintzeke, baina ez du eskuragarritasunaren arloke erabateke bermerik eskaintzen, ezta denbora-zigiluetan doitasuna ere. IZENPE ez da inola ere onura-galeraren, zeharkako edo ondoriozko kalteen edo datu-galeraren erantzule izango, indarrean dagoen legeriak hala ahalbidetzen duen heinean.
- IZENPE ez da harpidedunak edo hirugarren aldeak egindako arau-hausteen ondoriozko kalteen erantzule izango, aplikatzekeoak diren terminoetan eta baldintzetan.
- IZENPE ez da inola ere ezinbesteko gorabeheren ondoriozko kalteen erantzule izango, hala nola hondamendi naturalen, elektrizitatea edo telekomunikazioak erortzearen, suteen, kanpo-eraso ez aurreikusgarrien –birusen edo hacker-en erasoen–, gobernu ekintzen, edo greben ondoriozko kalteen erantzule.
- Edonola ere, IZENPEk gorabehera horien ondorioak arintzeke zentzuzko neurri guztiak hartuko ditu. IZENPEk ez ditu estaliko ezinbesteko gorabehera batek eragindako atzerapenaren ondoriozko kalteak.

## 6.5 Denbora-zigilua jaulkitzeke prozedura

Denbora Zigilatzeke Zerbitzua eskaintzeke helburuarekin, IZENPE gakoek kudeaketaz arduratzen da, betiere dokumentu honen 6.7 *Kontrol kriptografikoak* atalean deskribatzen denaren arabera.

Politika honen arabera jaulkitako denbora-zigiluak berariazko ziurtagiri batzuekin sinatzen dira, eta ziurtagiri horiek, halaber, CN = SUBCA QC IZENPE – TSA duen mendeko Ziurtapen Agintaritzaren Ziurtagiri Katearen mende jaulki dira..

Erroko Ziurtapen Agintaritzaren Ziurtapen Kate horri buruzko informazio gehiago lortu nahi izanez gero, kontsultatu ZPDaren 1.3.1. *Ziurtapen-agintaritzak* atala.

### 6.5.1 Denbora zigilatzeke zerbitzuaren hornidura eta eskuragarritasuna

Entitate erabiltzaileak eskatuta jaulkiko dira denbora-zigiluak. Entitate erabiltzaileak dokumentu elektronikoko baterako denbora-zigilu bat lortu nahi duenean, dokumentu horretatik abiatuta hash-balio bat edo hash-balio multzo bat kalkulatu du. Denbora-zigiluaren eskaeraren egituraren barnean hartuko da, eta IZENPEri igorriko zaio dagokion denbora-zigilua sortzeke ekin diezaion.

Denbora-zigilu horrek, IZENPEren sinadura elektronikoren bitartez, lotuko ditu jasotako datuak eta horiek zer data eta ordutan hartu zituen.



Onartzen diren algoritmoak dokumentu honen 6.8.2 *Denbora-zigiluaren eskaeraren profila* atalean deskribatzen dira.

IZENPEk ez du zigilatze jaso dituen datuen errepresentazioaren gaineko inolako egiaztapenik edo tratamendurik egingo, denbora-zigiluan eta erregistro-sistemetan barnean hartzeaz harantzago. IZENPEk ez du egiaztatuko edukia, ezta zigilatu beharreko datuen errepresentazioaren egiazkotasuna edo datuen jatorria ere.

Denbora Zigilatze Zerbitzua urteko egun guztietan eta eguneko hogeita lau (24) orduetan izango da eskuragarri, IZENPEren ez den gorabeheraren bat edo mantentze-lanen bat salbu. IZENPEk behar besteko aurrerapenez eman beharko du mantentze-lan horien berri, eta gehienez hogeita lau (24) orduetan konpontzen saiatuko da.

Denbora zigilatze eskaerak zein erantzunak IETF RFC 3161 gomendioan deskribatutakoaren arabera kudeatzen dira.

### 6.5.2 Denbora zigilatze eskaera

Denbora zigilatze eskaerak <http://tsa.izenpe.com> helbidera bidaliko dira, Content-Type: application/timestamp-query gisa kapsulatuta eta DERean kodetuta eta ASN.1ean deskribatuta (ikus IETF RFC 3161 gomendia).

### 6.5.3 Denbora zigilatze eskaera bati erantzutea

Datutze digitalaren eskaera bati ematen zaizkion erantzunak <http://tsa.izenpe.eus> helbidean jasotzen dira, Content-Type: application/timestamp-reply gisa kapsulatuta eta DERean kodetuta eta ASN.1ean deskribatuta.

Erantzunaren edukia da ASN.1 egitura bat –non barnean hartzen den eragiketaren emaitza (status), hau da, eragiketa behar bezala egin den edo ez– eta CMSSignedData (timeStampToken) egitura bat –non barnean hartzen den Datutze Digitaleko Agintaritzak sinatutako datutze digitala (TSTInfo)–.

Zigilatze Digitaleko Agintaritzaren ziurtagiria CAK jaulkitako ziurtagiri bat da, id-kp-timestamping luzapena duena, eta adierazten du ziurtagiri hori soilik erabiliko dela dokumentu digitalak datatzeko helburuarekin.

## 6.6 TSAren administrazioa eta eragiketa

### 6.6.1 Segurtasun Kudeaketa

IZENPEren TSAren segurtasunaren kudeaketa ZPDren *Segurtasun fisikoaren, prozeduraren eta langileen kontrola* 5. atalean dago deskribatuta.

### 6.6.2 Aktiboen sailkapena eta kudeaketa

IZENPEren TSAk ziurtatzen du informazioak eta beste aktibo batzuek segurtasunaren arloan tratamendu egokia jasotzen dutela, ZPDaren 5.7. *Larrialdietarako plana* atalean definitzen denaren arabera.

### 6.6.3 Langileen segurtasuna

Langileen segurtasun-kontrolak ZPDren *Segurtasun fisikoaren, prozeduraren eta langileen kontrola* 5. atalean daude deskribatuta.



## 6.7 Kontrol kriptografikoak

### 6.7.1 TSAren gakoak sortzea

Konfiantza-rolak dituzten langileek egindako ingurune fisiko segurtatua sortzen ditu IZENPEk gako kriptografikoak. IZENPEren TSAren gakoak berriazko prozedura bati jarraituta sortzen dira. TSAren ziurtagiriak gehienez 5 urteko iraupena izango du.

### 6.7.2 TSUren gako pribatua babestea

IZENPEren TSAk ziurtatzen du gakoaren konfidentziasuna eta integritatea mantentzen dela Zehazki, HSMak FIPS 140-2 3. mailako betekizunak betetzen ditu, baita dagokion profileko EAL4+ ziurtatze-maila ere. Ildo horretan, ZPDan IZENPEren mendeko CAetarako deskribatutakoaren pareko segurtasun-mailarekin mantentzen dira TSAren gakoak.

### 6.7.3 TSUaren gako publikoaren banaketa

IZENPEren TSA ziurtagiria [www.izenpe.eus](http://www.izenpe.eus) webgunean eman da argitara.

### 6.7.4 Ziurtagiria berritzea, TSUaren gakoak birsortuta.

Industriak algoritmoa, gakoaren luzera edo beste edozein segurtasun-neurri fidagarritzat jotzeari uzten badio, ziurtagiria iraungi aurretik ordezkatu beharko dira IZENPEren TSAren gakoak. Edonola ere, gakoak bi urtero berrituko dira eta jaulkiko da ziurtagiri berria.

### 6.7.5 TSUren gakoaren bizi-zikloaren amaiera

IZENPEren TSAk ez du uzten ziurtagiri iraungi edo ezeztatu batekin timestamp erantzunak sinatzen. IZENPEren TSAren zerbitzuei amaiera ematen zaienean, TSAren ziurtagiriaren gako pribatu guztiak suntsituko dira, babeskopiak barne, gako pribatu horiek berreskuraezinak izateko moduan.

### 6.7.6 Denbora-zigiluak sinatzeko erabilitako modulu kriptografikoaren bizi-zikloaren kudeaketa

Hardwareko segurtasun-moduluen (HSM) ez-ukatzeko zerbitzuak manipulatzeko ez direla –ez bidalketan, ez biltegitatzean– bermatzeko prozedurak ezartzen ditu IZENPEk.

Konfiantza-rolak dituzten langileek soilik instalatu eta aktibatuko dituzte hardware kriptografikoan biltzen diren sinadura-gakoak. IZENPEren barne-dokumentazioan deskribatzen dira HSMaren eragiketak, prozedurak eta bizi-zikloko kudeaketa

### 6.7.7 TSA ziurtagiriaren gako pribatua arriskuan egotea

IZENPEren TSA zerbitzuaren gako pribatua arriskuan badago, ZPDaren 5.7.3. *Gako pribatuaren konpromisoaren aurreko prozedura* puntuan adierazitako prozedura aplikatuko da. Halaber, kontingentzia-planeko 8.4 puntuan (*Larrialdietako Planaren VA/TSA zerbitzua*) adierazitakoa, besteak beste:

- Ez dira token timestamp-ak jaulkiko.
- Definitutako +/- 1 segundoko doitasun minimoa arriskuan badago, ez da denbora-zigilurik jaulkiko kalibrazioa zuzendu arte.





TSAk bermatzen du denbora zigilatzeke zerbitzuetan segurtasun-ekitaldiren bat gertatzen bada, gako pribatuaren konpromisoa edo UTCrekiko kalibrazioaren galera barne, harpidedunei eta hirugarrenei Izenperen web-orrian jakinaraziko zaiela.

Kontingentzia-prozedura espezifikoak daude TSA sistemetarako, eragiketak berreskuratzea eta TSUren gakoen konpromisoerik eta sinkronismoaren galerari erantzutea bermatzen dutenak.

Arriskuan badago, gutxienez IZENPEk:

- Harpidedunei eta erabiltzaileei konpromisoaren berri emango die.
- Ezeztatu egingo du TSA/TSU ziurtagiria, eta ezeztapen-zerrenda argitaratuko du.
- TSA ziurtagiri berri bat sortzea planifikatuko du, zerbitzua galtzea saihesteko, betiere horretarako segurtasun-arazorik ez badago.
- Konpromisoaren zergatiak ikertuko ditu eta neurri egokiak hartuko ditu berriro gerta ez daitezen.

Sinkronizazioa galtzen bada, gutxienez IZENPE:

- Denbora-zigiluen igorpena geldiaraziko du.
- Sinkronismoa galdu dutela jakinaraziko die harpidedunei eta erabiltzaileei.
- Zerbitzua ahalik eta azkarren berrezarriko du.

#### 6.7.8 TSAren amaiera

IZENPEren TSAren amaiera 'PR\_G\_Plan\_de\_Cese\_de\_Servicios\_de\_Izenpe' dokumentuko 3.8 atalean zehaztutako prozeduren arabera egingo da.

### 6.8 Denbora zigilatzea

#### 6.8.1 Zerbitzua egiteko erabilitako denbora-iturria

IZENPEk Armadaren Errege Behategirako konexio baten bidez lortzen du bere sistemen denbora, NTP protokoloari jarraituta, betiere Eusko Jaurlaritzarekin ezarritako konexioaren bitartez. NTP protokoloaren deskribapena IETF RFC 5905 estandarrean aurki daiteke.

Barne-zerbitzu horretan oinarrituta, denbora zigilatzeke zerbitzua (TSA) eskaintzen du IZENPEk, eta zerbitzu hori erabili ahal izango da dokumentu arbitrarioetan denbora-zigiluak sortzeke, betiere IETF RFC 3161 estandarren arabera



#### 6.8.2 Denbora-zigiluaren eskaeraren profila

- Denbora-zigiluaren eskaerak IETF RFC 3161ean definitutako egiturari jarraitu beharko dio.
- Eskaerak ETSI TS 101 861aren jarraibideei jarraitu beharko die.
- Onartzen diren hash algoritmoak dira: md2; md5; sha256; sha1; sha384; sha512. SHA1 eta SHA256 algoritmoak dira egokienak. Edonola ere, IZENPEk industriaren gomendioei jarraitzen die suite kriptografikoei dagokienez.

#### 6.8.3 TSAren ziurtagiriaren profila

TSUaren sinadura sortzeko datuak honako ziurtagiri hauekin lotuta daude:



EXTENSION ATTRIBUTE	VALUE	COMMENT
Subject	CN = tsa.izenpe.com 2.5.4.97 = VATES-A01337260 O = IZENPE S.A C = ES	
Issuer Name	CN = SUBCA QC IZENPE - TSA 2.5.4.97 = VATES-A01337260 O = IZENPE S.A C = ES	
Key Usage	Sinadura digitala (80)	
Extended Key Usage	Data inprimatzea (1.3.6.1.5.5.7.3.8)	
Subject key Identifier	<key identifier of this CA's public key>	
Authority key identifier	<key identifier of the issuing CA's public key>	
CRL Distribution Point	<a href="http://crl.izenpe.eus/cgi-bin/izenpeTSA">http://crl.izenpe.eus/cgi-bin/izenpeTSA</a>	URLs of the CRL Distribution points
Certificate Policy	[1]Ziurtagirien zuzentaraua: Zuzentarau-identifikatzailea=1.3.6.1.4.1.14777.10.1 [1,1]Zuzentarau-ziurtatzailearen informazioa: Zuzentarau-ziurtatzailearen IDa=CPS Ziurtatzailea: <a href="http://www.izenpe.eus/cps">http://www.izenpe.eus/cps</a> [1,2]Zuzentarau-ziurtatzailearen informazioa: Zuzentarau-ziurtatzailearen IDa=Erabiltzaile oharra Ziurtatzailea Kontsulta <a href="http://www.izenpe.com">www.izenpe.com</a> -en terminoak eta baldintzak ziurtagirian fidatu edo erabili aurretik - Consulte en <a href="http://www.izenpe.com">www.izenpe.com</a> los términos y condiciones antes de utilizar o confiar en el certificado	
Subject Information Access	[1]Agintaritza-informaziorako sarbidea Sartzeko metodoa=Sartzeko metodo ezezaguna (1.3.6.1.5.5.7.48.3) Ordezko izena: Helbidea URL= <a href="http://tsa.izenpe.eus/">http://tsa.izenpe.eus/</a>	



#### 6.8.4 Denbora zigiluko tokenaren profila

- Denbora-zigiluaren protokolorako IETF RFC 3161 eta RFC 5816 araei jarraitzen zaie.
- Zigilatze-profilerrako eta politiketarako, ETSI EN 319 421 arauari (Policy and Security Requirements for Trust Service Providers issuing Time-Stamps) eta ETSI EN 319 422 arauari (Time-stamping protocol and time-stamp token profiles) jarraitzen zaie.
- IZENPEk jaulkitako denbora zigilatze token guztiek barnean hartzen dute politika identifikatzeko objektua: (OID) 1.3.6.1.4.1.14777.300.1
- IZENPEk jaulkitako denbora zigilatze token guztiek barnean hartzen dute tokena sinatzeko erabiltzen den Timestamp ziurtagiria.
- Sinatzeko erabiltzen den ziurtagiria sortzean sha256WithRSAEncryption erabiltzen da, betiere 4096 bit-eko gako luzerarekin, eta TSA zerbitzuak soilik erabil dezake.
- Tokenaren hash-algoritmoa SHA-256 da

#### 6.8.5 Erlojua UTCarekin sinkronizatzea

- IZENPEren TSAk bere denbora-zerbitzaria du, eta zerbitzari hori ROArekin (Real Observatorio de la Armada, Armadaren Errege Behategia) sinkronizatuta dago.
- Kontrolak daude definitutako doitasuna arriskuan jar dezaketen sinkronizazio-arazoak hautemateko eta/edo kalibrazioan aldaketak hautemateko.
- TSAk UTC denbora-doitasuneko arauarekin bateragarria den denbora-doitasuna ziurtatzen du, betiere +/- 1 segundoko doitasun minimoarekin. IZENPEren TSAk ez ditu denbora-zigiluko tokenak jaulkiko, baldin eta ez bada denbora-doitasuna ziurtatzen
- IZENPEren TSAk eguneko azken minutuan –doikuntza planifikatuta dagoen minutuan– segundo gehigarrien tratamendu zuzena ziurtatzen du.

#### 6.9 Segurtasun fisikoa eta ingurumenekoa

IZENPEk bere TSAren segurtasun fisikoa eta ingurumenekoa bermatzen du, ZPDren *Segurtasun fisikoaren, prozeduraren eta langileen kontrola* 5. atalean zehazten den moduan.

#### 6.10 Eragiketen kudeaketa

IZENPEren TSAk eragiketa-kontrol egokiak mantentzen ditu, ETSI EN 319 421 aruaren jarraibideen arabera. Dokumentu eta politika horiek barnekoak dira, eta ez daude jendearentzat eskuragarri; gainera, aldi behin barne- eta kanpo-berrikuspenen bidez egiaztatzen dira, kontrol horiek betetzen direla eta eraginkorrak direla ziurtatzeko.

#### 6.11 Sareko segurtasuna

Sareko segurtasuna maila askotariko zonifikazioaren kontzeptuan oinarritzen da, firewall erredundante ugari erabilita. Sare ez-seguruen bitartez transferitzen den informazio konfidentziala modu zifratuan transferitzen da, SSL/TLS protokoloak erabilita.



#### 6.12 Gertakarien kudeaketa

ZPDaren 5.7.1 *Gertakariak kudeatzeko prozedurak* atalean definitutakoak.

#### 6.13 Ebidentziak jasotzea

ZPDaren 5.4 *Audit* atalean adierazitakoak

#### 6.14 Denbora zigilatzeke zerbitzuen eragiketarekin lotzen den informazioa artxibatzea

Ziurtapen Agintaritzaren eragiketarekin lotzen diren erregistroak bezalaxe sortu eta biltegitatuko dira denbora zigilatzeke zerbitzuaren eragiketarekin lotzen diren erregistroak. Hurrenez hurreneko kontrolek erregistro guztien beharrezko integritatea, konfidentzialtasuna eta artxibatzea ziurtatzen dute, ZPDaren 5.5 *Erregistroak artxibatzea* atalean zehazten den moduan.

IZENPEk ziurtatuko du neurri egokiak daudela bere erregistroak modu desegokian prozesa daitezen saihesteko.

#### 6.15 Sistemetarako sarbideen kudeaketa

IZENPEren TSAk sarbide-kontrol egokiak ditu, ZPDren *Segurtasun fisikoaren, prozeduraren eta langileen kontrola* 5. atalean zehazten den moduan.

#### 6.16 Lege-betekizunak betetzea

IZENPEren TSA zerbitzuek eIDAS araudiaren betekizunak betetzen dituzte. IZENPEk ziurtatzen du neurri egokiak ezartzen direla datu pertsonalak baimenik gabe prozesa daitezen saihesteko. IZENPEk, halaber, erabiltzaileek TSAri emandako datu pertsonalen eta bestelako informazioaren konfidentzialtasuna ziurtatzen du.

#### 6.17 Antolamendua

IZENPEren TSA mantentzen duen erakundea mendeko CAak antolatzen dituen erakunde bera da. ZPDan definituta daude antolamendu-segurtasuna, segurtasun teknikoa eta langileen segurtasuna, eta beste lege eta politika batzuen araberrakoak dira, betiere politika honetan definitzen denari jarraituta.